



LAZKAOKO
UDALA

**2022KO MAIATZAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita seian, iluntzeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2022ko martxoaren 31n egindako ohiko eta 2022ko apirilaren 25 egindako ezohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZK. KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespene proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ontzat ematen dutela kreditu aldaketa eta alde bozkatuko dutela.

Hau guztiaren ondoren, gaia bozketan jarri da, eta udalak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:



Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	309.308,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		309.308,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	309.308,00 €
GUZTIRA		309.308,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udalaren kale garbiketa zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, bere onarpenera jartzen da udal osoko bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira:

Kontratuaren epea 5 urtekoa da eta epe osorako lizitaziorako oinarria BI MILIOI SEIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA HIRUROGEITA HAMALAU zentimo (2.627.542,74 €).

Administrazio-klausula zehatzen agirian urtez urteko oinarrizko prezioa jasotzen da eta eskainitako prezioak oinarriarekiko duen jaitzieraren ehunekoa aplikatuko zaio urtez urteko oinarrizko prezioari.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun batzordearen eta baita hirigintza, etxebizitza eta obren batzordearen proposamenen aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

LAZKAOKO
UDALA

LEHENA.- Lazkaoko kale garbiketa zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Berriazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.



LAZKAOKO
UDALA

BIGARRENA.- Lazkaoko kale garbiketa zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartzea, 2022ko aurrekontuaren dagokion 1 227.01.163.00 partidaren gain gas-tua baimendu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea, iragarkia Kontratatzailearen Profilean eta baita Europako Komunitateen Egunkarian ere argitaratuz.

V.- ITURGAITZAGAKO 4 E.L. (EMAITZAZKO LURSAILA) BESTERENTZEKO LIZITAZIO DEIALDIA ESLEITU GABE UZTEA.-

2022ko martxoaren 31n egindako osoko bilkuran, Lazkaoko Udala eta Lazkao Lan-tzen S.A.ren jabetzakoa den Iturgaitzagako 4 E.L. emaitzazko lursaila besterentzeko kon-tratazio espedientea eta lizitazio deialdia egitea onartu zen.

Lizitazio deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu eta proposamenak aurkez-teko ezarritako epean ez da inolako proposamenik aurkeztu.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako 4 E.L. emaitzazko lursaila besterentzeko lizitazio deialdia esleitu gabe uztea erabaki du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, ilun-tzeko zazpiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA